



Gurean

berdintasuna



HEZKUNTZA SAIA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Hezkuntza Saileko Berdintasunerako administrazio-unitatea
15. zbk. 2022 Azaroa



Kopuruetatik haragoko erronkak



KOPURUETATIK HARAGOKO ERRONKAK

Emakumeen presentziak unibertsitateko ikasketetan azken hamarkadetan nabarmen gorantz egin duen arren, gorakada hori ez da eman esparru guztietan. Europar Batzordeak ezartzen duen xedearen arabera, generoen arteko parekotasuna eman dadin, genero biek %40 presentzia izan behar dute gutxienez. Aipatu gutxiengo hori ez da oraindik gauzatzeko erabat, eta kopururik eskasena ingeniari, informatika eta fisika arloetan ematen dira. STEM graduetan (Ingeniaritzan eta Informatikan) emakumezko ikasleak 11,76% dira. Zifra horiek aldatzea erronka zaila da, izan ere erabat erroturik dago umezarotik gizartean eta familietan arlo teknikoa eta teknologikoa gizonetzkoen arloak direla, estereotipo hori erabat barneraturik baitago.

Simón de Beauveoir idazle eta filosofo existentsialistaren arabera, lanaren bidez gaintu du emakumeak gizonarekiko ezarri zaion distantzia, lanak bakarrik bermatu baitiezaiok benetako askatasuna emakumeari. Mentkowski eta Rogers-ek (2010) egindako ikerketa batean, AEBetako Wisconsineko emakumezkoen unibertsitate batean ikasleen datuak hamar urtez bildu zituzten. Unibertsitatean hasi baino lehen emakumezko ikasleei egindako gaitasun-proba baten datuak aztertu zituzten, ondoren, unibertsitatea amaitu eta 5 urtez egin zitzaizen jarraipena. Ikerketaren arabera, komunikazioan, talde-lanean eta diziplina ezberdinetan integratutako lidergoan irakasgaiak jaso zituzten ikasleek genero diskriminazioari aurre egiteko eta ekitateari laguntzeko tresna eraginkorrak lortu zituzten.

Berdintasunerako Zuzendaritza 2016an sortu zuten UPV/EHUko Unibertsitatean, emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko helburuarekin. Zuzendaritza hori konprometitutako talde handi baten lanaren fruitu izan zen: gehienak emakumeak, eta euskal gizartearen eremu eta arlo ezberdinetan aukera berdintasuna lortzeko borrokan ibiliek.

Genero indarkeriei, jarrera sexistei eta genero arrazoiek eragindako diskriminazio jarrerari aurre egiteko, indarkerien kontrako UPV/EHUko Protokoloa aplikatzen da. 2018an Menina Saria jasotzeaz gain, ezinbesteko tresna bihurtu da gaur egun unibertsitatean tratatu ona sustatu dadin. “Genero edo orientazioagatik aniztasuna errespetatuko duen unibertsitate eremua bultzatzeko lana ere egokitu zaigula, eta esparru horren barnean pertsona transek eta ez-bitarrek UPV/EHU izena aldatzeko Protokoloa burutu genuen, 2021eko uztailan onartu zena eta izena aldatzeko prozedura administratiboa erraztu duena, arlo zibilean aldaketa ematen ez den bitartean”, dio Eleña Leñena UPV/EHUko Berdintasun Zuzendariak. Aipatu protokolo hori aplikatuz, formazioa eta programak sendotu nahi izan du Zuzendaritzak, unibertsitate-esparru ezberdinetako emakume eta gizonen egoerari dagokion informazioa eta datuen bilketarekin jarraituz. Zuzendaritzak zenbait programa jarri ditu abian, hala nola, ikasleei zuzendutako Indartu (Emakumezkoak) eta Eraldatzen (Gizonezkoak).

Baliabide pertsonalak eta kolektiboak

Indartu programari dagokionez, emakumezko ikasle gazteak ahalduzko prozesu bat abian jartzea du xede, norbanakoaren mailan, testuinguruaren mailan eta aktibismoaren mailan ezarri dira helburu espezifikoak: norbanakoak bere buruarengan dituen jarrerak ulertzen lagundu nahi du (gorputzari dagokionez, plazerari dagokionez etab.), horrez gain, norke bere buruarenganako jarrera positiboa eta auto-zaintza bultzatzea ahalduzko bidetik jotzen du. Horrez gain, mikro-matxismoak eta indarkeria bortitzagoak identifikatzen ditu, baliabide pertsonalak eta kolektiboak eskainiz egoera matxistak gaintu dez. Eraldatzen gizonetzkoen zuzendutako programak, bestalde, gizonen kontzientzia hartzea du helburu. Besteak beste, genero indarkeriazko egoerarik antzemanaz gero, horren berri eman ahal izateko eta indarkeria horiek jasaten dituzten pertsonen laguntzeko protokolo bat ezarri dute. “Zaila eta konplikatu da aplikatzea berdintasuna eta ekitatearen edonon, baita gizartean ere. Izan ere berdintasuna eta oreka gizarte baten kulturarekin eta baloreekin daude erlazionatuta. Horiek aldatzeko sentsibilizazio prozesua eta berdintasunean formazioa eskatzen du eta, tamalez, hori ez da egun batetik bestera lortzen, nahiz eta horretarako dirua izan”, adierazten du Elena Leñena Unibertsitateko Berdintasun Zuzendariak. Etorkizuneko erronkak laburbiltzean, formazioaren atal espezifikoak bultzatzeko asmoa agertu dute UPV/EHUtik, arestian nabarmendu STEM graduetako arlo ezinbesteko erreferentzia izango da, emakumeak graduotara bideratzeko proiektuak bultzatuz.

Berdintasunerako III. Plana

2019-2022 epealdiari dagokion Berdintasunerako III. Planak bost xede nagusi izan ditu: prestakuntza, ikerketa, gizartearekiko harremanak, pertsonak, gobernantza eta baliabideak. Prestakuntza ardatzari dagokionez, genero ikuspegia eta teoria feminista irakaskuntza eta ikerkuntzaren arloan barneratzeko formazioa sustatu dute. Horretarako, ikasturtero on-lineko prestakuntza osagarria eskaini zaie unibertsitatea osatzen duten talde guztiei genero eta berdintasun arloak lantzeko eta, ikasleei kredituak eman zaizkie mailaren arabera. Gainera, Hezikidetzaren alde bustil, Berdintasuna, Maskulinitateak, Hizkuntza Inklusiboa, Sexu dibertsitatea, Haurren aurkako sexu abusuak eta Emakumeen aurkako indarkeria programak jarri ditu indarrean Horrez gain, sariak ere antolatu dituzte urtero genero ikuspegia txertatu duten gradu eta masterretan, horren isla dira Francisca Aculodi eta Maria Goiry sariak. Gizarte eta lan harremanetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak aztertu, adostu eta ezartzeko, lan handia egin da azken 16 urte hauetan, UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzaren hitzetan "unibertsitatearen kide aintzeko organo guztietan osaera parekidea ematen da. Hau da, parekotasuna bermatuta dago eratzten diren batzorde eta erabakitze organo guztietan, errektoretza taldetik hasita edozein plaza ebaluatzeko eratzten den batzordeak gorde behar du oreka hori".



Genero ikuspegia doktorego tesietan

Ikerketaren esparruan, ikerketa feministak, generokoak, eta genero eta orientazioaren helburuak medio, aniztasuna aztergai dituzten doktorego tesiak egiten ari diren ikasleentzako laguntzak eta aipamenak ezarri ditu abian UPV/EHUk. Tesietan genero ikuspegia txertatu dutenezat aukera dago Micaela Portilla sarira aurkezteko eta irabazten duenari tesia argitaratzeko diru laguntza ematen zaio. Metodologikoki ere, Hizkuntza Inklusiboaren gida prestatu dute ikertzaileei

genero ikuspegidun proiektuak diseinatzeko. "Gizartearekiko harremanen ardatzak emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometitu dauden beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea du helburu. Hori dela eta, Emakunderekin, aldundiekin eta hainbat elkarterekin lanean jarduten dugu, gizartean, batez ere nerabeei eta neskatoei emakume erreferenteak emateko edo ikustarazteko neurriak bultzatuz", dio Leifenenak.

Interesgarria / De Interés

ABESTIA




LIBRE - IZARO

Badakizue aurtengo Beldur Barik lehiaketaren kantua Izaroren "Libre" dela? Kantu honen doinuek blaituko dute aurtengo edizioako ikus entzuzko lehiaketa.

[BIDEOA](#)

BIDEOA




AZAROAK 25EKO KANPAINA: "ZER EZ DUZU ULERTU NAHI? SOLIK BAI DA BAIETZ"

Azaroak 25eko kanpaina honetan gizonen beraiek, emakumeekin batera, egiten diete galdera beste gizon batzuei: "Zer ez duzu ulertu nahi? Bakarrik bai da baietz". Hemen duzue kanpainako bideo bat:

[IKUSI](#)

TXOSTENA



TXOSTENAK, ESTADISTIKAK ETA EBALUAKETAK

Emakundek, urtero, emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko datuak jasotzen dituen txostena egiten du. Horretan, estatistika-datuez gain, emakumeen aurkako indarkeriaren eraginari buruzko analisiak jasotzen dituzte.

[IKUSI](#)

Kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko aholkularitza zerbitzua

Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, Emakunde kontratu publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen laguntzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du.

Zerbitzu honen helburua da kontratazio publikoaren eremuan genero ikuspegia txertatzeko laguntza ematea, kontuan izanda Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken aldaketak.

EAEko erakunde publikoei zein pribatuei zuzenduta dago, dohainik da eta posta elektronikoko bidez egindako kontsulta zehatzak 2 egunetako epean (48 ordu) erantzungo dira. Beharrezkoa izanez gero, (kontsulta motak hala eskatzen duenean), argibideak edo azalpen osagarriak telefono bidez egin ahal izango dira.

Kontratazio publikoan berdintasuna sustatzeko aholkularitza zerbitzua

- Helburua:** Kontratazio publikoaren eremuan genero ikuspegia txertatzeko laguntza ematea, kontuan izanda Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken aldaketak.
- Nori zuzendua:** EAEko erakunde publikoei zein pribatuei.
- Kontsultak** 2 egun balioduneko epean (48 ordu) erantzungo dira.
- Doakoa.**
- Informazio gehiago:**
<https://www.emakunde.euskadi.eus/politika-publikoak/-/informazioa/berdintasunaren-aldeko-klusulak/>

INFORMAZIO GEHIAGO

Azaroak 25eko kanpaina: “Zer ez duzu ulertu nahi? Solik bai da baietz”



**SOILIK BAI
DA BAIETZ.**

azaroak **25** Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

900 840 111 ^{24h}
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



Azaroaren 25, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguneko kanpaina erakundeen artekoa izango da aurtien. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Emakunderen bitartez; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak; eta EUDELEK erakunde guztien arteko kanpaina koordinatua egin dute. Kanpaina bateratu honek zuzenean hitz egiten die gizonari eta gogoratzen die “bakarrik bai dela baietz” eta “ezetz esateko modu asko daudela, baina bat bakarra ulertzeko”. Kanpaina honetan, gizonak dira, emakumeekin batera, beste gizon batzuei galdera hau egiten dietenak: “Zer ez duzu ulertu nahi? Solik bai da baietz”.

GEHIAGO IKUSI

BA AL ZENEKIEN?

Gizonduz ekimenaren 15. urteurrena dela eta, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak, Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundearen bidez, naziarteko biltzarra antolatu du, eta hauek dira helburuak: Euskadin gizonari zuzendutako berdintasun-politika publikoen inguruan egindako lana ezagutaraztea eta horri buruz hausnartzea, esperientziak partekatzea, aliantzak sortzea, etorkizunerako proposamenak egitea eta gizonari berdintasunaren eta indarkeria matxistari gabeko bizitzaren alde egin dezaten lortzea.

[Informazio gehiago](#)
[Doako inskripzioa](#)

ELENA LEIÑENA MENDIZABAL

UPV/EHUKO BERTINTASUN
ZUZENDARIA



“Erabat erroturik dago arlo teknikoa eta teknologikoa gizonetzkoen arloak direla, estereotipo hori erabat barneraturik daukagu”

Zuzenbidean eta Ekonomia-Enpresa Zientzietan lizentziaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, Gizarte, Lege eta Ekonomia Zientzietan doktorea da Bartzelonako Unibertsitatean. Abokatutza Masterrean irakasten du Merkataritza Praktika Zuzenbide Fakultatean, Bizkaiko Sekzioan. Publizitate eta Harreman Publikoen Graduan eta Lan Harremanen Graduan irakasten du. Ibilbide akademikoa Zuzenbidearen arlo pribatuan egin badu ere, emakumeen partehartzea erabaki postuetan gaiari buruz ikertu du.

Zein da UPV/EHUKo Bertintasun Zuzendaritzaren lana?

UPV/EHUKo Bertintasunerako Zuzendaritzaren lanak helburu orokor eta garrantzitsu bat dauka, hau da, Unibertsitatean emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidea erraztea, eskura dituen baliabideak erabiliz eta baliabide horien artean unibertsitateak berak adostutako berdintasun politikak gauzatzea.

Helburu horren izaera zeharkakoa izanik, Zuzendaritzaren lana askotarikoa da eta, laburbiltzearen: lau zutabe garrantzitsu ditu: lehenengoa, eman daitezkeen indarkeriak prebenitzea edo tratatzea; bigarrena, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko aholkularitza ematea eta bete behar diren arauen jarraipena egitea; hirugarrena, genero ikuspegia txertatzeko formazioa (ikastaroak eta programak) antolatzea

eta bultzatzea; eta laugarrena, berdintasunari buruzko lerro estratagikoak unibertsitateko Bertintasun Batzordearekin batera finkatzea.

2019-2022 aldirako emakumeen eta gizonen Bertintasunerako III. Plana dago indarrean. Zeintzuk dira planaren xede nagusiak eta nola burutu dira orain arte?

2019-2022 aldirako emakumeen eta gizonen Bertintasunerako III. Plana burutzeko unibertsitateko Bertintasun Batzordeak, ikastegietako berdintasun batzordeak eta Bertintasun Batzorde Intersektorialak hartu zuten parte. Halaber, 2018ko zuzendariaren 2an Emakunderekin sinatutako hitzarmenaren bidez, erakunde horren babesa eta laguntza jasotzen da Plana garatzeko. Bost dira xede edo ardatz nagusiak: prestakuntza, ikerketa, gizartearekiko harremanak, pertsonak, gobernantza eta baliabideak.

Nola eragiten du plan horrek irakasle eta ikasleengan, orientazio akademikoari dagokionez?

Arlo akademikoari dagokionean, baliabiderik eraginkorrena denontzat, bai ikasleentzat bai irakasleentzat, berdintasunean ematen den formazioa da, zalantzarik gabe. Hori dela eta, hizkuntza inklusiboa irakaskuntzan erabiltzeko ematen diren oinarriak, edo genero ikuspegia txertatzeko ikerketan irakasleei ematen zaizkien jarraibideak baliabiderik sendoenak dira.

Irakasleek urtero daukate berdintasunean formatzeko aukera bai irakaskuntzan genero ikuspegia txertatzeko, baita ikerketan txertatzeko ere.

Ikasleei dagokienez, berriz, kredituetan errekonozimendua duen formazioaz eta on line ikastaroez gain (Bizikidetz, Berdin-

tasuna, Maskulinitateak, etab...), hainbat programa dituzte nesken, mutilen eta denon arteko tratua ona eta aniztasuna bultzatu eta indarkeriak saihesteko. Honen inguruan, aurrez aurreko programak eskaintzen ditugu, horien artean aipatu ditzakegu, Indartu programa neskenentzako eta Eraldatzen programa mutilentzako.

Unibertsitatearen egunerokoan generoaren ikuspuntutik, nola gauzatzen dira segregazio horizontala eta bertikala? Adibide praktikorik jartzerik?

Unibertsitatean segregazio horizontala jakintza esparrurik gauzatzen da. Horrek ondokoa dakar, STEM graduetan (Ingeniaritzan eta Informatikan) mutil eta gizon gehiago dagoela neska edo emakume baino (emakumezko ikasleak 11,76%). Zifra horiek aldatzea erronka zaila da, izan ere erabat erroturik dago gizartean eta familietan arlo teknikoa eta teknologikoa gizonetzkoen arloak direla, estereotipo hori erabat barneraturik daukagu.

Segregazio bertikala berriz, AZPko (Administrazio eta Zerbitzuak) langileekin baino, portzentaje handi bat emakumeak baitira, irakasleen artean ematen da. Izan ere, goi mailako kategori akademikoetan, hau da, katedretan gizonetzko gehiago baitago emakumezko baino (24,6% 2020an). Hala ere, itxaropentsu gaude, datuek agerian uzten baitute irakasle titular/izendun (45,44%) edo agregatuen (52,77%) artean emakumezko portzentaia handiagoa dela gizonetzkoena baino. Ikusiko dugu datozen urteotan, bidea errazten den eta katedradun emakumezko gehiago daukagun piramidearen puntaren erdi aldean behean baino.